

el mundo y los derechos humanos
XIII
MUESTRA DE CINE
GOLEM BAIONA
DEL 13 AL 17 DE NOVIEMBRE A LAS 20h
PRECIO 4,50€ TODOS LOS DÍAS
Fundación IPES Fundazioa
golem
Fundación FELIPE RINALDI
upna
NOSOLOFILMS
Mugarik Gabe Nafarroa
AMNISTÍA INTERNACIONAL
MÉDICOS DEL MUNDO
SUBVENCIONAN
Gobierno de Navarra
Ayuntamiento de Pamplona Iruñeko Udala






# CUSTODIA COMPARTIDA

## JUSQU'A LA GARDE

*Xavier Legrand (Francia, 90'. 2017)*

**INVITADA**

**RUT ITURBIDE** Experta en género y violencia de género, Doctora en Ciencias Humanas y sociales, Licenciada en Derecho y Diplomada en Trabajo social, Profesora de la Universidad pública de Navarra.

**PREMIOS**

Premio TVE Otra Mirada y el Premio del Público a la Mejor Película Europea, Festival de San Sebastián (2017)

León de Plata a la Mejor Dirección y Mejor Ópera Prima, Festival de Venecia (2017)

**SINOPSIS**

Miriam y Antoine Besson se divorcian. Miriam quiere obtener la custodia de su hijo Julien para protegerle de un padre al que acusa de comportamiento violento. Antoine se presenta como el padre abandonado y la juez concede la custodia compartida a ambos cónyuges.

**Xavier Legrand**, estudió Arte Dramático en el Conservatorio Nacional de París. Su primer cortometraje, AVANT QUE DE TOUT PERDRE, participó en más de cien festivales internacionales y recibió cuatro premios en Clermont-Ferrand 2013 y el César al Mejor Cortometraje en 2014. **CUSTODIA COMPARTIDA** (Jusqu'à la garde) ganó el León de Plata al Mejor Director y el premio a la Mejor Ópera Prima en el Festival de Venecia y recientemente ha ganado el premio del Público Mejor Película Europea y el premio TVE "Otra mirada" del Festival de San Sebastián.






# JUPITER'S MOON

## JUPITER HOLDJA

*Kornél Mundruczó (Hungría, 123'. 2017)*

**INVITADAS**

**IDOIA ONECA** Coordinadora
**SOFÍA ZAMALLOA** Abogada
**BEATRIZ ORTEGA** Responsable de procesos de inclusión.

Trabajan desde Enero de 2017 en el Programa de Acogida a personas solicitantes de asilo, en CEAR Navarra (Comisión Española de Ayuda al Refugiado). CEAR lleva desde el año 1979 trabajando a nivel estatal.

**PREMIOS**

Premio a la Mejor Película, Festival de Sitges (2017)

**SINOPSIS**

Un joven emigrante es disparado cuando intenta cruzar ilegalmente la frontera. Bajo el efecto de su herida, Aryan descubre que ahora tiene el poder de levitar. Es encerrado en un campo de personas refugiadas pero escapa con la ayuda del Dr. Stern, que incentiva el proyecto de explotar su extraordinario secreto. Fascinado por el increíble don de Ayran, Stern decide apostar todo en un mundo donde los milagros se pueden comprar. Kornél Mundruczó presentó en Cannes este thriller en el que lo sobrenatural se mezcla con una de las grandes tragedias contemporáneas.

**Kornél Mundruczó** Estudió interpretación y dirección en Budapest. Tras dirigir varios cortos, inició una fulgurante trayectoria con el largo PLEASANT DAYS (2002). Entre sus películas destacan DELTA (2008), TENDER SON: THE FRANKENSTEIN PROJECT (2010) y WHITE GOD (2014). Predomina en su trayectoria como cineasta, su ambición cinematográfica a la hora de combinar y unir en sus películas la denuncia social y el entretenimiento espectacular.






# LA CAZADORA DEL ÁGUILA

THE EAGLE HUNTRESS

*Otto Bell (EEUU, 87'. 2016)*

## INVITADO

**MIKEL BERRAONDO** Experto en derechos de pueblos indígenas. Ha trabajado durante 16 años con diversas agencias internacionales y ONGs, la protección de los derechos de los pueblos indígenas. Actualmente es director de innovación social en Zabala Innovation Consulting.

## SINOPSIS

Una adolescente lucha contra la tradición en este documental ambientado en el macizo de Altai, al este de Mongolia, donde desde hace centenares de años reside una comunidad kazaja que mantiene una especial relación con las águilas reales, a las que crían desde pequeñas y preparan para la caza. Este siempre ha sido un oficio reservado para los hombres. Pero Aisholpan tiene 13 años, es hija de un cazador de águilas y está decidida a seguir sus pasos y convertirse en la primera cazadora de águilas de Mongolia.

## PREMIOS

Premio del Público al Mejor Largometraje en el Festival de Cine y Derechos Humanos de San Sebastián (2017)

**Otto Bell** Nació en el Reino Unido en una familia de agricultores de Northumberland, en la que creció amando al aire libre. Estudió literatura inglesa en Oxford, etapa que le ayudó a cimentar su amor por la narración de cuentos y la estructura narrativa. Pero es en New York, donde comenzó a producir y dirigir películas cortas de estilo documental. **LA CAZADORA DEL ÁGUILA** (2016) es su primer largometraje documental.










# ALANIS

ALANIS

*Anahí Berneri (Argentina, 82'. 2017)*

## INVITADA

**MARÍA BARCONS CAMPMAJÓ**

Licenciada en Ciencias Políticas, Máster en Estudios de Mujeres, Género y Ciudadanía. Pertenece al Grupo de investigación Antígona (UAB) y coordina el proyecto "El desarrollo de los derechos fundamentales en las ordenanzas municipales: límites y vulneraciones de derechos desde la perspectiva de género (DEORGE)".

## PREMIOS

Concha de Plata a la Mejor Dirección y Concha de Plata a la Mejor Actriz (Sofía Gala), Festival de San Sebastián (2017)

## SINOPSIS

Alanis ejerce la prostitución. Tiene un bebé y comparte con Gisela, una compañera, un apartamento en el que vive y atiende a sus clientes, hasta que dos inspectores municipales clausuran su hogar y se llevan a Gisela, acusada de trata. Desde su barrio multirracial y violento, Alanis intenta salir adelante, ayudar a su amiga y cuidar a su hijo. Ofrece en la calle lo que sabe hacer, pero hasta la calle tiene sus reglas y Alanis debe pelear por su lugar.

**Anahí Berneri** estrenó su ópera prima, UN AÑO SIN AMOR (2005), en la Berlinale, donde obtuvo el Teddy Award. ENCARNACIÓN (2007) compitió en el Festival de San Sebastián, donde fue distinguida con el premio FIPRESCI. Su tercera película, POR TU CULPA (2010), se estrenó en Berlín y recibió el Premio al Mejor Director del Festival de Lima, y su protagonista, Érica Rivas, el Premio del Jurado a la Mejor Actriz en el Festival de Turín. Con AIRE LIBRE volvió en 2014 a la Sección Oficial de San Sebastián. Este año ha recibió la Concha de Plata a la Mejor Dirección y la Concha de Plata a la Mejor Actriz (Sofía Gala), por **ALANIS**.

## VIERNES 17 NOV

**No Solo Films** es una asociación fundada por **Luis Arellano**, **Carlos Caro**, **Natalia Ardanaz** y **Gema Rebollo** que promueve la producción y distribución de documentales de derechos humanos cuyo objetivo sea ayudar a sus protagonistas a través de su herramienta de crowdfunding social **www.nosolofilms.org**

# CIRCUS FOR ALL

*(España, 6’. 2017)*

La ilusión y el trabajo duro, puede hacer crecer un espectáculo de circo incluso con medios limitados.
Dirección y guion: **Carlos Caro** Producción: **No Solo Films** Ayudante dirección: **Gema Rebollo** Operador de Sonido: **Tamiru Asrat** Sonido postproducción y Musicalización: **Samuel Tornero**

# MILK

*(España, 11’. 2017)*

La leche es un alimento esencial durante la infancia y su escasez o mal reparto causa problemas de salud.
Dirección y guion: **Carlos Caro** Producción: **No Solo Films** Producción ejecutiva: **Gema Rebollo** y **Konsue Salinas** Ayudante dirección: **Eñaut Egiluz** Sonido postproducción: **Samuel Tornero**












# NEETU

*(España, 6'. 2017)*

El perdón puede ser un camino para reconstruir tu vida después de un ataque contra ella.
Dirección: **Carlos Caro** Guion: **José Bautista** Producción: **No Solo Films** Productora ejecutiva: **Gema Rebollo** Sonido, edición y musicalización: **José Bautista**

# NGOR

*(España, 54'. 2017)*

Las calles de Senegal están repletas de niños en harapos que desde el alba y hasta el anochecer, deambulan con un cuenco amarillo en busca de unas monedas o algo que comer. Se calcula que son 300.000 los que mendigan a diario, son niños de la calle que a menudo son denominados "Niños Talibés"
Producción: **No Solo Films** en colaboración con **Asociación Jërëjëf, Maison de la Gare** y **ONDH-RADIAB** Dirección, edición, fotografía y guion: **Luis Arellano** Producción: **Luis Arellano** y **Amaia Alonso** Banda sonora original: **Gorka Pastor** Etalonaje: **Hugo Zúñiga** Posproducción audio: **Roberto Irisarri**

## **Carlos Caro** (Madrid, 1975)

Fotógrafo y cineasta amateur. El cine le ha regalado otra herramienta para contar historias sobre todo de esas pequeñas que pasan desapercibidas y tienen tanto que enseñarnos. Carlos es creador de **www.lacajatonta.tv** página dedicada a promocionar cortometrajes y webseries de nuevas personas realizadoras. Es Vicepresidente de **No Solo Films** y ha dirigido "Buzón de Voz", "Lucía y uno del máster", "El lado oscuro del paraíso", "La noria de Bagán", "Cuba connection", "Amor y estadística", "Split Up", "Punishment Island", "Un día de campo", "The Home maker", "Free dreams", "Sergio", "Neetu, "Circus for all", "Recauchutados" y "Sheroes".

## **Luis Arellano** (Navarra, 1969)

Fotógrafo, documentalista y presidente de **No Solo Films**. Trabaja en proyectos de cooperación al desarrollo y activismo pro derechos humanos y compagina sus labores docentes en audiovisual y derechos humanos con la dirección de documentales sobre vulneraciones de derechos y libertades fundamentales. Entre sus producciones cuenta con "Sahara no se vende", "Focus on Gulu", "Memorandum in Memoriam", "Joyce", "Baadaye", "Lake Victoria Children", "Kabanga" y su última producción "Ngor".



# SESIONES EDUCATIVAS MATINALES 2017

## ESPECIAL ENSEÑANZA MEDIA

**De 9:00h a 11:15h**

## LUNES 13 Y MARTES 14 NOV

### SESIÓN SOBRE VIOLENCIA DE GÉNERO

**con Rut Iturbide.**

**"Encuentra el verdadero amor"** Cinco cortos dirigidos y producidos por la Asociación de Mujeres Cineastas y Medios Audiovisuales (CIMA).
**"No es No"** del Ayuntamiento de Amorebieta
**"Las canciones machistas que no son Reggaetón"** Video de la bloguera Sandra Roma.

## MIÉRCOLES 15 NOV

### SESIÓN SOBRE PERSONAS MIGRANTES, REFUGIADAS, DEFENSORAS DE DERECHOS HUMANOS…

**"Personas que se mueven"** en el marco de la campaña de Médicos del Mundo.

## JUEVES 16 NOV

### SESIÓN SOBRE ISLAM E ISLAMOFOBIA.

Proyección de **"Ngor"**. Documental de Luis Arellano.


mundua eta giza eskubideak
XIII
ZINEMA-ERAKUSKETA
GOLEM BAIONA
2017KO AZAROAREN 13TIK 17RA 20ETAN
PREZIOA 4,50€ EGUN GUZTIETAN
Fundación IPES Fundazioa
golem
Fundación FELIPE RINALDI
upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
NOSOLOFILMS
AMNISTÍA INTERNACIONAL
MÉDICOS DEL MUNDO
SUBVENCIONAN
Gobierno de Navarra
Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala




# CUSTODIA COMPARTIDA

## JUSQU'A LA GARDE

*Xavier Legrand (Frantzia, 90'. 2017)*

### GONBIDATUA

**RUT ITURBIDE** Aditua genero-arloan eta genero-indarkerian, Gizarte- eta Giza Zientzietan doktorea, Zuzenbidean lizentziaduna eta Gizarte-lanean diplomaduna; Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea.

### SARIAK

Otra Mirada TVE saria eta ikusleek Europako film onenari emandako saria Donostiako Zinemaldian (2017)

Zuzendari onenaren Zilarrezko Lehoia eta opera prima onena Veneziako Jaialdian (2017)

### SINOPSIA

Miriam eta Antoine Besson banandu egin dira. Miriamek semearen –Julien– zaintza hartu nahi du bere gain mutikoa babesteari begira, aitari portaera biolentoa izatea leporatu baitzaio. Antoine aita abandonatu gisa aurkeztu da epailearen aurrean, eta hark zaintza partekatua agindu die bi gurasoei.

**Xavier Legrand** Arte Dramatikoa ikasi zuen Pariseko Kontserbatorio Nazionalean. Hark egindako lehen film laburra, AVANT QUE DE TOUT PERDRE, nazioarteko ehun jaialditan baino gehiagotan izan da eta lau sari irabazi zituen Clermont-Ferrand 2013 jaialdian, eta film labur onenarentzako César saria 2014an. **CUSTODIA COMPARTIDA** (Jusqu'à la garde) filmak zuzendari onenarentzako Zilarrezko Lehoia saria eta opera prima onenarentzako saria irabazi zituen Veneziako Jaialdian, eta, berriki, Donostiako Zinemaldian, ikusleek Europako film onenari emandako saria eta "Otra mirada" TVE saria irabazi ditu.




# JUPITER'S MOON

## JUPITER HOLDJA

*Kornél Mundruczó (Hungaria, 123'. 2017)*

**GONBIDATUAK**
**IDOIA ONECA** Koordinatzailea
**SOFÍA ZAMALLOA** Abokatua
**BEATRIZ ORTEGA** Inklusio-prozesuen arduraduna.
Lanean ari dira 2017ko urtarriletik asilo eskatzen duten pertsonak hartzeko programan, CEAR Navarra-n (Iheslariari laguntzeko Espainiako batzordea). CEAR 1979tik ari da lanean estatu mailan.

**SARIAK**
Film Onenaren Saria Sitgesko Jaialdiko sail ofizialean (2017)

**SINOPSIA**
Muga legez kanpo gurutzatzen ahalegintzen ari zela, tiro egin diote etorkin gazte bati. Harri eta zur, Aryan konturatu da zauriaren ondorioz lebitatzeko ahalmena duela orain. Iheslarientzako esparru batean giltzaperatuko dute, baina ihes egingo du handik Stern doktorearen laguntzaz, zeina gaztearen sekretu aparta ustiatzeko proiektua lantzeko asmotan baitabil.
Aryanen dohain sinestezinaz liluraturik, mirariak erosteko aukera ematen duen mundu baten aldeko apustu sendoa egingo du Stern doktoreak. Kornél Mundruczó zuzendariak Cannesko zinema-jaialdian aurkeztu zuen thriller hau, non naturaz gaindikoa eta gaur egungo tragedia handietako bat nahasten diren.

**Kornél Mundruczó** Interpretazioa eta zuzendaritza ikasi zuen Budapesten. Zenbait film labur zuzendu eta gero, ibilbide distiratsu bati ekin zion PLEASANT DAYS (2002) film luzearekin. Hark egindako filmen artean, honako hauek nabarmendu daitezke: DELTA (2008), TENDER SON: THE FRANKENSTEIN PROJECT (2010) eta WHITE GOD (2014). Zinemagile egindako bidean, salaketa soziala eta entretenimendu ikusgarria bateratzeko anbizio zinematigrafikoa du ezaugarri aipagarriena.






# LA CAZADORA DEL ÁGUILA

THE EAGLE HUNTRESS

*Otto Bell (AEB, 87'. 2016)*

## GONBIDATUA

**MIKEL BERRAONDO** Aditua herri indigenen eskubideen arloan. 16 urtez aritu da lanean zenbait nazioarteko agentziatan eta GKEtan, betiere herri indigenen eskubideak babeste aldera. Gaur egun, berrikuntza sozialeko zuzendari aritzen da Zabala Innovation Consulting-en.

## SINOPSIA

Neskatxa nerabe bat tradizioaren aurkako borrokan ari da Altaiko mendietan, Mongoliaren ekialdean; han, ehunka urte dira kazakhstandar komunitate bat bizi dela, arrano beltzak sortzen direnez geroztik prestatzen dituena ehizan erabiltzeko. Lanbide horretan, ordea, gizonak bakarrik aritu dira orain arte; baina Aisholpan –13 urte– arrano-ehiztari baten alaba da, eta erabakita dago aitaren urratsei jarraitzeko bidean, Mongoliako lehen emakume arrano-ehiztari bilakatzeko.

## SARIAK

Ikusleek Film Luze Onenari Emandako Saria Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian (2017)

**Otto Bell** Erresuma Batuan sortu zen Northumberland-eko nekazarien familia batean, non aire librea maitatzen hazi zen. Ingalaterrako literatura ikasi zuen Oxford-en, eta, etapa hartan, ipuinen narrazio eta egitura narratiboarekiko zaletasun bizia sendotzeko aukera izan zuen. Baina New York-en hasi zen dokumental erako film laburrak produzitzen eta zuzentzen. **LA CAZADORA DEL ÁGUILA** (2016) da haren estreinako film luze dokumentala.




# ALANIS

ALANIS

*Anahí Berneri (Argentina, 82'. 2017)*

**GONBIDATUA**

**MARÍA BARCONS CAMPMAJÓ**

Politika-zientzietan lizentziaduna eta masterra Emakumeen, Generoaren eta Herritarren gaineko ikasketetan. Antígona ikerketa-taldeko (UAB) kidea da; gaur egun honako proiektu honetan ari da koordinatzaile: "Oinarrizko eskubideen garapena udal ordenantzetan: mugak eta eskubideen urraketak genero-ikuspegitik (DEORGE)".

**SARIAK**

Zuzendari Onenaren Zilarrezko Maskorra eta Emakume Aktore Onenaren Zilarrezko Maskorra (Sofía Gala) Donostiako Zinemaldian (2017)

**SINOPSIA**

Alanis prostituzioan aritzen da. Haur txiki baten ama da, eta lankide batekin batera –Gisela– bizi da apartamentu batean. Bertan hartzen ditu bezeroak ere, baina egun batean bi inspektorek etxea itxiarazi, eta Gisela atxilotuko dute pertsonen salerosketan aritzea leporatuta. Arraza anitzeko bere auzo bortitzean, Alanis aurrera egiten saiatuko da, aldi berean laguna eta semea zainduz. Egiten dakiena eskainiko du kalean, baina kaleak bere lege propioa izaki, Alanisek gogor borrokatu beharko du bere lekua lortze aldera.

**Anahí Berneri** Zuzendariaren lehen lanak, UN AÑO SIN AMOR (2005) izenekoak, Berlinale jaialdian hartu zuen parte, eta Teddy Award saria erdietsi zuen. ENCARNACIÓN (2007) lana Donostiako Zinemaldian lehiatu zen, eta FIPRESCI saria eskuratu zuen. Haren hirugarren filma, POR TU CULPA (2010) lana, Berlinen erakutsi zen lehen aldiz, eta, Limako jaialdian, zuzendari onenarentzako saria lortu zuen. Filmeko protagonistak –Érica Rivas–, halaber, epaimahaiak emakume aktore onenari emandako saria jaso zuen Turingo jaialdian. 2014an, Donostiako Zinemaldiko sail ofizialera itzuli zen Aire libre filmarekin. Aurten, **ALANIS** filmak zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra eta emakume aktore onenaren (Sofía Gala) Zilarrezko Maskorra jaso ditu.

## AZA. 17a, OSTIRALA

**No Solo Films Luis Arellano**k, **Carlos Caro**k, **Natalia Ardanaz**ek eta **Gema Rebollo**k fundatutako elkarte bat da, giza eskubideei buruzko dokumentalen banaketa eta produkzioa bultzatzen dituena, baldin eta haien helburua bada dokumentaletako protagonistei laguntzea crowdfunding sozialerako tresnaren bitartez: **www.nosolofilms.org**

# CIRCUS FOR ALL

*(Espainia, 6'. 2017)*

Ilusio handia badago eta lan gogorra egiten bada, gero eta zirku-ikuskizun hobea egin daiteke, nahiz eta oso baliabide gutxi izan.
Zuzendaria eta gidoigilea: **Carlos Caro** Produkzioa: **No Solo Films** Zuzendaritza-laguntzailea: **Gema Rebollo** Sound Operator: **Tamiru Asrat** Soinu-postprodukzioa eta musikatzea: **Samuel Tornero**

# MILK

*(Espainia, 11'. 2017)*

Esnea funtsezko elikagaia da haurtzaroan, eta falta bada edo gaizki banatuz gero, osasun-arazoak sortzen dira.
Zuzendaria eta gidoigilea: **Carlos Caro** Produkzioa: **No Solo Films** Produktore eragileak: **Gema Rebollo** eta **Konsue Salinas** Zuzendaritza-laguntzailea: **Eñaut Egiluz** Soinu-postprodukzioa: **Samuel Tornero**












# NEETU

*(Espainia, 6'. 2017)*

Zure bizitzaren kontrako eraso bat izanez gero, barkamena izan daiteke bide bat hura berreraikitzeko.
Zuzendaria: **Carlos Caro** Gidoia: **José Bautista** Produkzioa: **No Solo Films** Produktore eragilea: **Gema Rebollo** Soinua, edizioa eta musikatzea: **José Bautista**

# NGOR

*(Espainia, 54'. 2017)*

Senegalgo kaleak zarpail jantzitako haurrez beterik daude egunsentitik ilunabarrera arte, zeinak egun guztian zehar batera eta bestera ibiltzen baitira, eskuetan katilu hori bat daramatela, txanpon edo jateko batzuen bila. Uste da 300.000 haur inguru aritzen direla eskale egunero. "Talibe" haurrak esaten zaie.
**No Solo Films erakundeak Jërëjëf**, **Maison de la Gare** eta **ONDH-RADIAB elkarteekin** batera produzitutako lana da. Zuzendaria, edizioa, fotografia eta gidoia: **Luis Arellano** Produkzioa: **Luis Arellano** y **Amaia Alonso** Jatorrizko soinu-banda: **Gorka Pastor** Etalonajea: **Hugo Zúñiga** Soinu-postprodukzioa: **Roberto Irisarri**

## **Carlos Caro** (Madril, 1975)

Argazkilari eta zinemagile amateurra. Zinemak beste tresna bat oparitu dio istorioak kontatzeko, bereziki oharkabean pasatzen diren istorio xume horiek, ikasgai ederrak eskaintzen dizkigutenak. **www.lacajatonta.tv** webgunearen sortzailea da, non errealizadore berrien film labur dokumentalak eta web-sailak sustatzen baitira. **No Solo Films** elkarteko lehendakariordea da, eta honako lan hauek zuzendu ditu: "Buzón de Voz", "Lucía y uno del máster", "El lado oscuro del paraíso", "La noria de Bagán", "Cuba connection", "Amor y estadística", "Split Up", "Punishment Island" , "Un día de campo", "The Home maker", "Free dreams", "Sergio", "Neetu", "Circus for all", "Recauchutados" eta "Sheroes".

## **Luis Arellano** (Nafarroa, 1969)

Argazkilaria, dokumentalista eta **No Solo Films** elkarteko lehendakaria. Garapenerako lankidetza-proiektuetan eta giza eskubideen aldeko aktibismoan lan egiten du; bestalde, Ikus-entzunezkoen eta giza eskubideen arloko irakaslea da, eta, aldi berean, oinarrizko askatasunen eta eskubideen urraketa salatzen duten dokumentalak zuzentzen ditu. Hark egindako produkzio-lanen artean, honako hauek daude: "Sahara no se vende", "Focus on Gulu", "Memorandum in Memoriam", "Joyce", "Baadaye", "Lake Victoria Children", "Kabanga" eta bere azken produkzio-lana, "Ngor".



# GOIZEAN, HEZKUNTZA -SAIOAK 2017.

## BEREZIAK IRAKASKUNTZA ERTAINARENTZAT

**9:00etik 11:15era**

### AZA. 13a, ASTELEHENA
### AZA. 14a, ASTEARTEA

**GENERO-INDARKERIARI BURUZKO SAIOA, Rut Iturbiderekin.**

**“Encuentra el verdadero amor”** kanpainako film laburrak; Emakume zinemagileen eta ikus-entzunezko bitartekoen elkarteak (CIMA) zuzendutako eta produzitutako lanak.
**“Ez da ez”** kanpainako film-laburrak; Amorebietako Udalaren ekimena da.
**“Las canciones machistas que no son Reggaetón”** Sandra Roma blogariaren bideoa.

### AZA. 15a, ASTEAZKENA

**MIGRATZAILE, IHESLARI ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO LANA EGITEN DUTEN PERTSONEN GAINEKO SAIOA**

**“Mugitzen diren pertsonak”** Munduko Medikuak erakundearen kanpainaren esparruan.

### AZA. 16a, OSTEGUNA

**ISLAMARI ETA ISLAMOFOBIARI BURUZKO SAIOA.**

**“Ngor”**. Luis Arellanoren dokumentala.